

Klasekoek beti ilargian zaudela esaten digute

HAIZEA BERUETE LOPETEGI

DBH 1. eta 2. kurtsoak 3. saria

Iruñeko Eunate BHI

Iruñerrian euskara
ez da hitz egiten gustora
ni horrexek kezkatzen nau
eta egiten nau zora
teoria badakigu
baina falta da ganora
euskara hitz egitea
bihurtu behar dugu droga
bestela gure hizkuntza
joan egingo da hondora.
Nola konpondu pentsatzen
pasatzen dut nik denbora.

Lagunei esaten diet
beti erabiliz zuka
erdara euskaragatik
egingo al dugu truka?
Baina haiek hasten dira
ezezka eta kexuka:
«Beno, ze axola du horrek?
utzi euskara ahaztuta!»
Hainbeste aldiz esatez
gogoia egin zait buka
ta konturatu orduko
zuloan nago sartuta.

Jendeak esaten ohi du
«Gora Euskadi, hoberena»
ta nik hori entzutean
sentitu egiten dut pena
esan, esaten dute bai,
baina hori ez da dena
Hau da nik uste dudana:
ez dela bide zuzena.
Euskaraz hitz egitea
da egin behar den aurrena,
zertarako nahi herri bat
hizkuntzarik ez duena?